



UZTAILAREN 2EAN TOURRA IGAROTZEKO NEURRIAK

Uztailaren 2ean , igandean , Abaltzisketako udalerritik Tourra igaroko dela jakin da 15:00 ak inguruan . Tourraren aurretik , ohikoa den karabana ere igaroko da .

Gertaera honen aurrean honako neurriak hartu direla jakitera eman da :

1.-Larunbatean , Gaintza, Zaldibi , Orendain eta Abaltzisketako bidea itxita izango dira, honako salbuespenekin :

.-Abaltzisketarrak direla ziurtatzen denean , etxera joateko pasoa utziko da .

.-Lanera joan etorria egin behar dutenak eta horrela ziurtatzen bada pasoa izango dute.

2.-Igandean bidea itxita egongo da , eta soilik lanera joan eta etorri behar dutenentzat , eta herriko jatetxetan otordua hartuta duenentzako pasoa izango da, ordu jakinetan . Eta beste guztientzat , arratsaldeko 16:00 ak arte bidea itxita izango da.

NOLA ZIURTATU :

.-Bakoitzak bere N.A.N. bidez helbidea Abaltzisketako duen kasuan .

.-Eta beharrezkoa den kasuan , udalak baimen bereziak emango ditu , larunbatean Abaltzisketara iristeko .

Argibide gehiago aurrerago jakin ahala emango zaizue . Eta energentzi kasuren batean deitu alkateari 646284242 telefonora .

Abaltzisketan , 2023eko ekainak 26ean .

Alkateak



UZTAILAREN 2EAN TOURRA DELA ETA ,
ABALTZISKETARA IRITSI EDO ATERATZEKO BAIMENA

Abaltzisketako udalak , honako baimena eskuratzen dio , Tourra dela eta
Abaltzisketara iritsi edo irtetzeko baimena izan dezan:

Izena eta Abizenak :

Data :

Nondik nora :

Eginkizuna :

Abaltzisketan , 2023eko ekainaren 26ean .

Alkateak